

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2019/11/21

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Amaña es La Caña elkarteko ordezkariak galdetu du ea nola doan auzoan zinema izateko proiektua.	Proiektu bat egiten ari dira eraikinaren beharrak baloratzea ahalbidetzeko. Nahiz eta dagokion sailak lehen balorazioak egin, pandemiaren ondorioz egin beharreko aurrekontu-egokitzapenek ez dute aukerarik eman proiektuan aurrera egiteko.
Obrak	Auzotar batek salatu du frontoiaren teilatutik ura sartzen dela Tiburtzio Anituako garajeetan. Dioenez, lehen espaloi bat zegoen, gero txikitu zena eta horrek eragin zituela filtrazioak.	Plazatxotik sartzen zen uraren arazoa konpondu egin zen. Espaloiari dagokionez, estutu egin zen saihesbidearen obrarekin, baina lerrokadurari eutsi zitzaion eta ez zion fatxadari eragin.
Obrak	Kexu da Tiburtzio Anituako asfaltatuaren inguruko laneko txostenik ez delako egin.	Hondoratu den kanalizazio-zanga bat da. Egin beharreko asfaltatu-lanetan sartuko da.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du ez dagoela desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekurik Tiburtzio Anitua osoan.	Gaur egun desgaitasuna duten pertsonentzako tokiak daude 14, 20, 21, 23, 27 eta 31 zenbakien aurrean. Hala ere, beharrezkoa bada toki gehiago gordetzea, eskabidea egin dezakete, eta aztertu egingo da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio, euria egiten duen bakoitzean, urtez betetzen dela Amañako frontoia, ur-zorrotenak trabatu egiten direlako.	Udal Lantaldeak egoera egiaztatu du eta zorrotenak garbi daude. Arazoaren jarraipen bat egingo da ikusteko nondik sarten den ura frontoira.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2019/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Tiburtzio Anitua 8 zenbakiko auzotar batek dio euria egiten duenean ura sartzen dela.	Behin baino gehiagotan aztertu da arazoa, eta ez da udal eskumenekoa.
Udaltzaingoa	Eskatzen du Berdintasunaren pasealekua gehiago zaintzea, grafitiak eta txakur-kakak direla-eta.	Kontuan hartuko da eta zaintza-lanak, ahal den neurrian, handitu egingo dira.
Obrak	Ziriako Agirre 1 zenbakiko auzotar batek dio, Lau-Bide tabernaren ondoan, ikusten ez den eskailera-maila bat dagoela.	Proiektu bat idazten ari dira Ziriako Agirreraren irisgarritasuna hobetzeko.
Obrak	Eskatu du arrapala bat sortzea Ziriako Agirre kaleko eskaileren ondok, gunearen irisgarritasuna hobetzeko.	Proiektu bat idazten ari dira Ziriako Agirreraren irisgarritasuna hobetzeko.
Zerbitzuak	Eskatu du Artegietako iturria konpontzeko. Dioenez likina egoten da beheko aldean, eta labainkor hurbildu nahi duenarentzat.	2020ko urtarrilaren 27an egin zen lan-agindua hura kendu eta berria jartzeko. Hala ere, erabaki zen iturburua indargabetzea eta iturria ur-horniduraren sarera konektatzea.
Zerbitzuak	Salatu du Ziriako Agirren kokatutako edukiontzia ez direla erabiltzeko erosoak, eta ahoa oso altu geratzen dela, aldapan jarrita daudelako.	Mankomunitateak edukiontzien egoeraren txosten bat egin du, aztertzeko zain dagoena. Azterketa horren emaitzan dioena egingo da.
Zerbitzuak	Auzokide bat kexu da Karlos Elgezua kaleko 3-5-7 zenbakien artean dagoen barandan pintura altxatuta dagoela, eta min egiten duela eskuetan. Gainera, ziurtatu du eskaileretan likina dagoela.	Otsailean baranda lixatu eta pintatu egin zen.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2019/11/21

Saila	Laburpena	
Obrak	Galdetu du zergatik jarri den zebra-bidea Amañako igogailu berritik hain urrun.	Asmoa zen ahalik eta ikusgaitasun handiena ematea oinezkoei, inguru horretan dagoen trafikoa kontuan hartuta.
Udaltzaingoa	Karlos Elgezua 8 zenbakiko bizilagun batek salatu du auzoko jendeak hor aparkatzen duela, eta eraikin horretako ezin dutela bertan aparkatu.	Ingurua bide publikoa bada, eta aparkatzea baimenduta badago, edozeinek egin dezake, eta ez bakarrik aipatutako eraikineko jendeak.
Udaltzaingoa	Eskatu du, Bilbotik edo Donostiatik Karlos Elgezua kaleko 8. zk.ko sarbidean debekatutako norabide-seinalea dagoen lekuan, "8. zenbakiko bizilagunak izan ezik" dioen seinale bat gehitzea, eta marra eten bat pintatzea, beren etxebizitzara sartu nahi duten bakoitzean auzoari buelta eman beharrik ez izateko.	Seinalazioan aldaketak egiteko zain daude.
Hirigintza	Auzokide batek galdetu du ea pasarela bat egin daitekeen Berdintasunaren pasealekutik Mercadonara.	Berdintasunaren Pasalekua ibiltoki lineala da, dagoeneko baduena pasarela bat ospitalearen ondoan. Bestetik, Mercadona enpresa ekipamendu komertzial pribatu bat da (Eroski, Lidell edo Aldi bezala). Badakigu supermerkatua eraiki zenean, enpresak, bere interesengatik, pasarela eraikitzeke aukera baloratu zuela. URA eta ETS entitateekiko gestio-arazoek eta, seguru aski, baita haren kostu handiak ere ez zuten soluzioa bideragarri egin.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2019/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Kexu da Tiburtzio Anitua inguruko eskailera mekanikoak gaizki dabilzalako.	Eskailera horietan arazoak egon ziren eskudelekin eta kateekin, baina konpondu ziren. Gaur egun, ez dago arazorik batere eskailera horiekin.
Obrak	Auzotar bat kexu da zintarri-zati bat falta delako Karlos Elgezua 1 zenbakiaren parean dagoen lorategian, saihesbiderako igoeran. Esan du arriskutsua dela.	Konpondu da.
Udaltzaingoa	Salatu du zenbat txakur-kaka dagoen, batez ere, Karlos Elgezua inguruan.	Animalien ordenantzak edo kale-garbitasunari buruzkoak betetzen ez dituzten pertsonak antzematen direnean, salaketak jartzen dira.
Obrak	Kexu da aparkalekuak falta direlako Karlos Elgezuan. Esan du kendu egin zirela eta kendutako horiek ez direla beste inon jarri.	Aztertu egin behar da ea inguru horretan aparkaleku gehiago egin daitezkeen.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du pantaila babesgarri bat jartzeko Amañako frontoian, euria eta haizea egiten duen bakoitzean urik ez sartzeko. Gainera, pantaila horrek eragotzi egingo luke pilotak Berdintasunaren pasealekura joatea.	Aztertzen ari dira frontoiaren albo-itxiera.
Obrak	Eskatu du ez labaintzeko produkturen bat aplikatzea Berdintasunaren Pasealekuan. Adierazi du euri pixka bat egiten duenean labaindu egiten duela.	Pasealeku berrian egindako irristakortasun-entseguek araudia betetzen dute.
Obrak	Eskatu du frontoiaren ostean bainu publikoak jartzea.	Ez da bideragarri ikusten komun publikoak jartzea plazan.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2019/11/21

Saila	Laburpena	
Obrak	Bustinduitarren kaleko bizilagun bat kexu da arrapalarik ez dagoelako, eta sarrerako eskailerek ez dutelako eskudelik; hortaz, jende askok errepidera atera behar izaten du.	Datorren urtean inguru hori hobetzeko proiektu bat egingo da.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da Amañako parrokiaren ondoko iturriak espaloi osoa bustitzen duelako.	Erabaki zen iturburua indargabetzea eta iturria ur-horniduraren sarera konektatzea.
Obrak	Kexu da Amañako parrokiarako sarbideko zebra-bideak inklinazio handia duelako eta gainera ez dela bide guztian berdina.	Inklinazioa kalearen pendiz handiagatik gertatzen da.
Zerbitzuak	Artegietan 7 zenbakiko bizilagun batek salatu du Udaleko etxebizitza batean egin zen mudantza baten ondorioz bere etxeko atean markak eragin zizkiotela eta ez diotela konpondu.	Eibar-Ermua Gurutze Gorriari eskatu zitzaion konpontzeko.
Zerbitzuak	Artegietan 7 zenbakiko bizilagun batek galdetu du ea etxebizitza batzuetan antzeman den termiten arazoa eraikin osora heda daitekeen.	Urtearen erdialdera, bilera bat egon zen Udalaren eta Artegietan 7 bizilagunen komunitatearen artean, eta argitu egin zen galdera.
Zerbitzuak	Kexu da Ospitalearen eta Mercadonaren arteko zatian dagoen argiztapen urriaz. Dioenez, arbolek argiak estaltzen dituzte, eta, beraz, eskatu du adarrak inaustea.	Arbolak 2019ko abenduan kimatu ziren.
Zerbitzuak	Bizilagun batek salatu du Amañako ikastetxearen behealdean kokatutako garaje pareko espaloi-zatia oso labainkorra dela.	Abisua eman zitzaion Mankomunitateari espaloia garbitzeko.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2019/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Ziriako Agirre kaleko bizilagun batek eskatu du sistema bat jartzea martxan abisatuko duena igogailua dabilen ala ez, igotzen hasi aurretik.	Arazoa aztertu zen, baina oso garestia zen; hortaz, eta oraingo egoera kontuan hartuta, erabaki zen sistema hori ez jartzea oraingoan.
Udaltzaingoa	Galdetu du ea jar daitekeen ispiluren bat Amañako ikastetxe pareko garajeen ondoan. Dioenez, ez dago bisibilitaterik.	Garajeen irteeran ispiluak jartzea eska daiteke. Baina, behin Udalak baimendu ondoren, eskatzailearen arduraren izango da bai hura jartzea bai mantentzea.
Zerbitzuak	Salatu du, eskailera mekanikoak konpontzen dituztenean, teknikariek dena zikin lagatzen dutela.	Abisua eman zitzaion Tyssen-i bere teknikariei kexa helarazteko. Ez da kexa gehiago jaso.
Udaltzaingoa	Segurtasun-kamerak jartzea eskatu du, eskailera mekanikoetan izaten diren behar ez bezalako jokaerak kontrolatzeko.	Gaia aztertuta, ez da komenigarritzat jotzen hura jartzea. Araudiak justifikazio garbi bat eskatzen du bide publikoan kamerak jartzeko.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2019/11/21

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2019/11/21

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

DATA: 2019/11/21

Saila

Laburpena